



Patxi Galé

A vueltas con los montes

DESPUÉS de catorce años, el *Catálogo de cimas de Euskal Herria* vuelve a materializarse en su tradicional formato en papel. Desde la última edición de 1999, ha habido tres más en formato digital "provisional", realizadas con el fin de que los coleccionistas de cimas pudiesen notificar errores o enviar sugerencias para su mejora.

Aunque no ha habido tanta participación como se deseaba, en estos años se han generalizado y agilizado mucho las tecnologías de la información. Internet ahora nos da acceso a datos que antes solo estaban en manos de especialistas y, además, hemos contado con el inestimable auxilio de algunas redes sociales montaÑeras que han puesto sus datos a nuestra disposición o han colaborado directamente en la revisión del catálogo.

Seguro que se comentarán las cimas nuevas que entran en los listados, a menudo para sustituir a otras que ya no serán válidas para el concurso de los cien montes. Y, como de costumbre, los nombres de las cimas serán la comida de todo coleccionista que, una vez más, tendrá que familiarizarse con los nuevos topónimos o grafías de cimas que "siempre" se han llamado tal o cual...

En este capítulo de la toponimia, irrumpen por primera vez en el catálogo denominaciones en lenguas que, como el euskera, no gozan hoy del vigor que tuvieron en otros tiempos. Como ocurre con todo idioma, el primer paso para su salvaguarda y posible "normalización" consiste en reconocer su existencia. Entre nosotros ya venía siendo normal el uso de nombres catalanes o eusquéricos para designar montañas de los territorios correspondientes y, por la misma razón, han de irse abriendo camino también nombres propios de comunidades lingüísticas con menor visibilidad, como el asturiano, el aragonés o el occitano. El uso normalizado de sus topónimos entre nosotros será el mejor homenaje a quienes bautizaron espontánea y anónimamente esas cimas utilizando esas lenguas que eran, además, las únicas que conocían. Somos conscientes de que supondrá un pequeño esfuerzo por nuestra parte, pero tendremos la satisfacción de conocer algo de otras culturas vecinas e incluso, por qué no, de sentir las también un poco nuestras.

Otra de las novedades que aporta esta edición del catálogo es la referenciación cada vez más precisa y exacta de las cimas. Se utiliza como fuente altimétrica general el *Mapa Topográfico Nacional* del IGN español a escala 1:25000, así como su equivalente francés. En la actualidad ambas cartografías son accesibles vía internet y esperamos ganar cierta estabilidad en los datos, al no realizarse nuevas ediciones con la frecuencia usual de cartografías más locales. Las coordenadas también se han revisado en su totalidad y se ofrecerán en datum ED50 y ETRS89.

Posiblemente la novedad más llamativa será que viene complementado por un único mapa topográfico de Euskal Herria, en sustitución de los tradicionales mapas esquemáticos provinciales de antes. Igualmente, un pequeño mapa de la Península Ibérica sitúa gráficamente los macizos y submacizos que contienen las cimas extrarregionales catalogadas.

Por último, el catálogo renovado se hace eco de unos pequeños cambios en el reglamento del concurso, orientados a recuperar el prestigio que tuvo gracias a sus objetivos fundacionales: practicar el montañismo con cierta continuidad, conocer Euskal Herria en su totalidad y visitar montañas de cierta entidad o importancia. Aunque los cambios parezcan un tanto "restrictivos", estamos seguros de que dotarán de mayor prestigio al concurso, a la Hermandad y, en definitiva, a la gran plataforma de montañeras y montañeros de base que constituye el principal valor de nuestra actividad. Para ellos y ellas es el nuevo *Catálogo de cimas de Euskal Herria*.

Mendiak gora mendiak behera

HAMALAU urteren buruan, ostera ere gauzaten da Euskal Herriko mendien katalogoa bere paperezko euskarri ohikoan. 1999ko azken ediziotik hona, beste hiru egin dira "behin-behineko" euskarri digitalean, mendi biltzaileek zerrondak hobetze aldera, aurkitutako akatsak nahiz euren iradokizunak bidaltzeko aukera izan zezaten.

Nahi zen beste parte hartzerik egon ez den arren, urte hauetan informazioaren teknologiak erruz orokortu eta azkartu dira. Lehen adituen esku baino ez zeuden datuak eskaintzen ditu orain internetek eta, gainera, zenbait gizarte-sare mendizalaren laguntza eskergarria izan dugu, euren datuak gure esku jarri ere ezik, katalogoaren birbegiraketan artez parte hartu ere egin dutenak.

Segurua da zerrendetako gailur berriek ekarriko dutela solasbidea, baita ordezkatuak izan direlako aurrerantzean ehun mendien lehiaketarako baliagarriak izango ez direnek ere. Eta, ohi legez, mendien izenak izango dira bildumazaleen hizpide nagusia, "betidanik" izen hau edo bestea izan duten mendientzat, ostera ere toponimo edo idazkera berriak ikasteari ekin beharko diote eta...

Toponimiaren alor honetan, lehenengoz jasoko ditu katalogoak, euskararen modura, antzina gaur baino indartsuago bizi ziren zenbait hizkuntzako izenak. Edozein hizkuntzari gertzen zaion legez, dagokion zaintza eta balizko "normalizazioarako" lehen urratsa haren existentzia onartzea da. Gure artean dagoeneko normala zen euskarazko nahiz katalanezko izenen erabilera dagozkien lurraldeetako mendiak izendatzeko eta, arrazoi beragatik, hain agerikoak izan ez diren asturiera, aragoiera eta okzitaniara bezalako hizkuntza komunitateen ondare diren izendapenek ere bide egin beharko dute aurrerantzean. Haien toponimiaren erabilera normalizatua izango da gailur horiek espontaneoki eta egiletasunik gabe bataiatu zituztenentzako omenaldirik onena, eta hizkuntza horiek erabiliz egin zuten, hizkuntza horiek zirelako ezagutzen zituzten bakarrak. Jakin ere badakigu geure aldetik ahalegintxo bat eskatuko duela horrek, baina auzoko kultura batzuetako zer edo zer ezagutzeko gozamina izango dugu baita, zergatik ez, apur bat gureak sentitzeko poztasuna ere.

Gailurren gero eta kokatze zehatzagoa nahiz zorrotzagoa da, bestalde, katalogoaren argitalpen honen beste berrikuntzetako bat. Iturri altimétriko orokor legez, Espainiako IGNren 1:25000 eskalako Mapa Topográfico Nacional delakoa erabili da, baita haren baliokide frantsesa ere. Gaur egun kartografia biak daude internet bidez eskuragarri eta era honetan espero dugu datuetan egonkortasun handiagoa lortzea, lekuan lekuko kartografiatan bezain sarri ez dutelako berrargitalpenik egiten. Koordinatuak ere exhaustiboki birpasatu eta ED50 nahiz ETRS89 datum-etan eskainiko dira.

Beharbada berrikuntzarik deigarriena, ordea, lehenengo mapa eskematiko probintzialen ordez, Euskal Herriko mapa topografiko bakar batez lagunduta etortzea izango da. Era berean, Iberiar Penintsulako mapa txikiago batean, modu grafikoan, katalogatutako kanpoko gailurrei dagozkien mendigune eta azpimendiguneen kokaeraren berri emango da.

Azkenik, katalogo berrituak lehiaketaren araudian egindako aldaketa xume batzuk ere jasotzen ditu, haren sortzeko helburuei esker izan zuen ospe ona berriro irabaz dezan: mendizalatasunean modu iraunkorrean jardutea, Euskal Herria bere osotasunean ezagutzea eta funts nahiz garrantzi nabarmeneko mendiak bisitatzea. Aldaketok apur bat murrizgarriak ematen badute ere, seguru gaude lehiaketaren ospea prestigioatzeko balioko dutela, baita Anaidiarena eta oinarritzko mendizaleen multzo eskergarena ere, azken finean, horixe delako gure jarduerak duen baliorik handiena. Mendizale horientzat da, izan ere, Euskal Herriko mendien katalogo berria.